

600 pertsona bilduko dira bihar sagardo lehiaketan

X. ARAMENDI

Iazko atsedenaren ondoren aurten berriz antolatu da Astigarragan sagardo lehiaketa. Dagoeneko bederatzigarren edizioa izango da bihar burutuko dena eta berrikuntza nabariena leku aldaketarena da, pilotaleku berrian izango baita.

Frontoi berrian 600 pertsona inguru bilduko dira bihar eta antolatzaileetarikoa batek adierazten zuenez oraindik salgai daude txartel batzuk, beraz interesatuek Zipotza elkartetik pasa beharko dute.

Lehiaketa afariaren barruan burutzen da eta bertan edozeinek puntua dezake dastatzen duen sagardoa eta txartelak 3.500 pezeta balio ditu. Guztira 3.200 botila sagardo aterako dira eta 32 sagardotegik hartuko dute parte lehiaketan. Atzo eguerdian sukaldean sartu eta afaria prestatzen ari

ziren Gure Izarra, Zipotza eta Astigar elkarteko kideak.

Joxe Mari Olaziregik esplikatzeko duenez frontoia jateko bakarririk erabiliko da eta gainontzeko prestakuntzak kanpoan egingo dira. Arratsaldeko 6etan hasiko dira trikitilariak giroa berotzen eta lehiaketan laguntzen duten zortzi tabernetan zehar ibiliko dira. 7.30etan gora igoko dira eta txalapartaren bidez egingo du afariarako deia Irungo Aranburu bikoteak. Afarian bertan ere, gainera, Lizaso eta Telleria bertsolariak eta Zaldibiko trikitilariak arituko dira.

Olaziregik berehala dio sagardo festa honetan parte hartzen dutenek badakitela kalitatea neuritzen, sagardogileen iritzia eta beraiena ez baita oso urrun ibiltzen. «Emakumeak dira onenak», dio irribarretsu.



Astigarragan bada sagardo zaletasunik.

EGIN